BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3934

AGINDUA, 2012ko uztailaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Baltistan Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen, 2012ko ekainaren 13an, Baltistan Fundazioaren estatutuen 1. eta 10. artikuluen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu, eta, ondoren, erabaki-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikulua.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, arau hauetan aurreikusitakoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikulua. Aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator estatutuen aldaketa.

Ikusirik aipatutako manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aretxabaletako (Gipuzkoa) Baltistan Fundazioaren estatutuen 1. artikuluan (izena) eta 10.ean (patronatua) egindako aldaketak onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa hori inskribatu dadila agintzea, agindu honen data duela, 2012ko ekainaren 1ean Arrasateko notario Antonio Román de la Cuesta Gáldiz jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 396).

Estatutuen 1. artikuluan izandako aldaketa inskribatzearen ondorioz, Felix Baltistan Fundazioak izen hau izango du aurrerantzean: Baltistan Fundazioa.

Bestalde, estatutuen 10. artikuluan izandako aldaketa inskribatzearen ondorioz, patronatuak 11 kide izan beharrean, 8 izango ditu, aurrerantzean. Hori dela-eta, patronatuaren osaera egokitu beharko da, estatutuen artikulu hori berriro idazteko.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.